

Nola esan izan bollerera?



Soropila

AINARA ARTETXE (Katalinak bizikletaneko kidea)

Amaia Alvarez Uria eta biok konturatu ginen euskaraz gabezia bat zegoela lesbianak izendatzeko. Hitz jokoak gorabehera, *bollera opila* bihurtu genuen eta sororitatea edo emakumeen arteko ahizpatasuna ere egotea nahi genuen: *soropila* hitza sortu zen.

Kapaza

ANA I. MORALES (itzultzailea)

Hetero ez den edonorentzat balio du, Alaine Agirrek irakatsi zidan. Bestalde, *mari-sasaurrizkia* neologismoak sortzeko emankorra izan daiteke. Bururatzen zaizkit *mariartazi*, *mariguraize*, -lesbiana esateko-, edo *maripinpirin*, *marinexka*, *mariguapa* -femme esateko-.

Piperopila

JOSUNE ORTIZ (Lumatzako kidea)

Donostiako EHGAMen militatzen nengoela, euskal lesbianok gure burua euskaraz izendatzeko hizkuntzarekin jolasean, *piperopila* berba alaiatu jakun. Geroago, Iruñeko Lumatza taldean, gure kamisetetarako Gasteizko Katalinak taldearen *soropil* berba hartu gendun.

Ulertu

DANELE SARRIUGARTE (idazlea)

laz, *Ulertzen?* deitutako ipuin bat idatzi nuen. Ulertzearen eta gorpuztearen arteko jolas bat proposatzen nuen. Testu hori katalanera eta galizierara itzuli zuten, ez ordea gaztelaniara, nahiz eta gaztelania izan erreferentziaren iturria (diglosiaren xendrak!).

Pottorbero

AINARA SARASKETA (Pottors ta Klitoko kidea)

Gure musika taldean, Zarauzko lagunekin asmatutako euskerazko hitzak erabili genituen: *oialoka*, *maritxu*, *txirla jale*, *atzeko txulozale*... Pottorbero mugimendua ere sortu genuen, normatik kanpo geunden pertsona oro identifikatzeko eta askatasun sexualaz, aniztasunaz... hausnartzeko. Pottor Fest-ak ere antolatzen genituen!

Neskazalea

AMAIA AGIRRE (bertsolaria)

Bertsotan lasai erabiltzen ditut *bollera* eta *lesbiana* hitzak. Baina egunerokoan, ez naiz etiketazalea. Euskaraz neskazalea esango nuke, baina ez nau gehiegi konbentzitzen. Gehien erabiltzen detena *lesbiana* da.

Kuir

ARRATE HIDALGO (itzultzailea)

Neuk *bi* erabiltzen dut nire desirak definitzeko, militantzia kontua da. Genero-identitateari begira, *kuir* eta *boi* gisa definitu izan dut nire burua. Ingelerazko testuinguruetan nire izatea garatu izanagatik izan daiteke, hein batean.

Bollojabetza

IRATI LEON (B.A.L.A.ko kidea)

Gasteizko B.A.L.A.n oso identifikatuak sentitzen gara *bollera* hitzarekin nahiz eta ez izan euskal hitz bat. Hitz jokoetan erabili izan dugu, adibidez, jardunaldi feministetako gure ponentzian *bollojabetza*.

Mari-mutil handi

FERMINTXO ZABALTZA (itzultzailea)

Mari-mutil handi baten *bluesa* hautatu nuen Leslie Feinbergen *Stone butch blues* liburuaren izenburua itzultzeko. *He-she* esateko *emazte-gizon* gomendatu zidan Itziar Diez Ultzurrunek, Orotariko Euskal Hiztegian dago, eta 'gizon femeninoa' edo 'emakume maskulinoa' adierak ditu.

ZINE
GOAK
2021

hika
ateneo

Euskadi,
auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA